

## Botilarena



Zigor Etxeburua  
KONTSEILUKO TEKNIKARIA  
@ZEtxeburua

**E**AEko VI. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak direla eta, nola dago euskararen botila?

Botila dariola. Euskalduntzearen erritmoa motetgia da. Ez da aski urtero, batez beste, puntu erdi eskas haztea euskaldunen multzoa. Kalkulu azkar bat eginez, ohartuko gara ehun eta hirurogeita hamalau urte beharko direla euskalduntze bete lortzeko, azken urteotako hazkundeari eutsiz gero (beste aldagairik kontuan izan gabe, jakina). Erritmo hori biziagoa izan zitekeen euskalduntzen ez duten hezkuntza ereduak baztertuz gero, baina hori da botilak ipurdian duen zuloetako bat. A ereduak kondena bat da.

Erabileraren datuak ez dira etxaferoak jaurtitzeko modukoak ere. Horrelakoetan galdekatuak politikoki zuzena izateko joera duenez, benetan egiten duen erabilera baino hobe aitoritzen du. Horregatik, ez dirudi datu ona denik erabilerak soilik puntu erdia egitea gora, bost urteotan. Horrez gain, inkestak erakutsi du euskararen erabilera atzeraka egiten ari dela, eremu euskaldunenetan, bat etorri UEMAK egindako azterketekin. Harrigarria dena da Jaurlaritzak erlatibizatu nahi izatea apaltze hori. Beste askok, aitzitik, moteltzearen kontzientzia hartu du eta tresnak sortu eta neurriak ezarri ditu, galera gelditzeko eta erabilera bizkortzeko. Botila erdi bete ikustea zilegi da, baina

eskertzekoa litzateke zuloak estaltzeko jarrera tinkoago bat, euskararen botilan zulo handiena eragiten duen Jaurlaritzaren partetik ere.

Botila erdi bete. Ez da euskaldunik galdu eta berriak irabazi dira, katea ez da eten. Euskalduntzea gazteen prozesua izan da, nagusiki, euskarazko hezkuntzari eta euskaltegiei esker. Hurrengo urteotako biztanleria aktiboa euskalduna izango da, berehala. Errealitate horri erantzun behar zaio, dagoeneko, euskalduntzeko pareko erritmoak eta politika eragingarriak ezarri, administrazioaren, hezkuntzaren, arlo sozioekonomikoaren, eta kulturaren eta aisia- ren esparruetan. Euskaldun hartzaileen multzoa ere esanguratsua da eta aukera gisa ikusi behar da. Oraindik euskaldun "oso" ez dela kontsideratzen duenak sentitu behar ditu, gizartearen partetik, euskalduntzen jarraitzeko beharra eta laguntza (mintzakideak, doakotasuna...). Gainera, euskara sustatzearen aldeko herritarren joera nabarmena da, Idoia Mendiaren eta enparauen zorigaitzerako.

Gauzak horrela, euskararen erabilera proaktiboa egiteko edota hizkuntza politika egokiak ezartzeko arrazoiak behar zituenak hortxe ditu, aukeran. Euskararen botilaren zuloak estaltzeko eta euskararen iturria gehiago zabaltzeko ahalmena izatea eta botere hori praktikatzeko kontua. Bada garaia. ■

## Oxigeno-poltsak



Edu Zelaieta  
IDAZLEA

**A**zkenaldian ikusi gabeko beste aita batek esan dizu jatorri atzerriko ikasleek moteltzen dutela gelaren erritmoa. Horregatik erabaki dute guraso batzuek euren seme-alabak beste ikastetxe batzuetan matrikulatzea. Aurten, ikasle horiek Gasteizko beste eskola batzuetan ari dira ikasten, eta, bertan ia "immigrante"rik ez dagoenez, askoz eduki gehiago lantzen ari omen dira. Konfiantzan adierazi omen dizunez, beste guraso askok ere gauza bera pentsatzen dute, baina ez dira publikoki ezer esatera ausartzen.

Ikasteko erritmoa moteltzea da, beraz, arazoa. Dibertsitateak dakarren aberastasuna aitortzea

politikoki zuzena izan daiteke, eta polita, ordu batzuetako ospakizunetarako. Izan ere, ikasle batzuen erritmoa moteltzea ez da desiragarria, ez behintzat ikasle horiek geure seme-alabak direnean. Are gutxiago, Jaurlaritzak tipologia bertsuko ikasleak multzokatzeko aukera ematen duenean.

Inor gutxi zalantzan jarriko du eskolak bizi- tzarako prestatu behar duela. Ezta "immigrante"rik gabeko oxigeno-poltsak bilatzen dituzten gurasoek ere. Alabaina, euren seme-alabentzako funtsezko kontu bat utzi dute bazterrean: bizitzarako prestatzeak elkarbizitzarako prestatzea ere badakarrela. ■